*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hemeretziko azaroaren hogeita batean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.

**ALKATEA**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
ANDRÉS LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK**
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (ZUIA BAI)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- URRIAREN 10, 18 ETA 30EAN EGINDAKO OHIKO ETA**

En Murgia a veintiuno de noviembre de dos mil diecinueve, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de las personas de la Corporación que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES Y CONCEJALAS ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)
**CONCEJALES QUE NO ASISTEN**
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LAS SESION ORDINARIA Y EXTRAORDINARIAS**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

**EZOHIKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA**

Ikusirik urriaren 10 eta 18ko ohiko aktak eta 30eko ezohikoa, Alonso zinegotzi jaunak zehaztapen bat egin du 5.- Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantza Proposamena aztergaian, hobariak lortu ahal izateko OHZ zergaren gehieneko errentei buruz hitz egin zenean esan zen azken eguneraketa 2013an egin zela, eta alkateak azaldu dio baietz, EUSTATen araberako gehikuntza 2013ko abendutik 2018ko abendura 3,5koa zela.

Udalbatzak aho batez onartu du aipatu aktak 2019.10.10ekoaren inguruan azaldutako zuzenketarekin.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

Alkatetzak aurtengo 2019.10.07ko 382. zk.ko dekretutik 2019.11.194ko 441.era arte eman dituen xedapenen berri eman da; bertaratutako batzuek hainbat ebazpenen berri galdetu dute: Lanbideren Enplegu Plan barruan 2 langabetu kontratatzeko prozesuaren hasiera; 5.000 euroko gaikuntza espedientea (EJren diru-laguntza, artxibategiko dokumentazio zaharra digitalizatzeko); familia ugariari OHZn hobaria ukatzea, kideetako batek beste higiezin bat edukitzagatik; CTNEk, telefono mugikorreko deien banagunea dela-eta EIOZ zergaren likidazioen aurrean, aurkeztutako errekurtsoa onartzea, AFAren bitartez konpentsatzen baita udalerriko fakturazioaren arabera; Sarriako etxebizitzaren okupazio baimena ematea; eta Murgiako lursailean hezia legeztatzeko baimena ukatzea, ez direlako arau subsidiarioak betetzen. Alkateak honen guztiaren inguruan berri eman, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**CELEBRADAS LOS DÍAS 10, 18 Y 30 DE OCTUBRE RESPECTIVAMENTE.**

Vistas las actas ordinarias y extraordinarias celebradas los días 10 y 18 y 30 de octubre respectivamente, por parte del Concejal Sr. Alonso se hace una puntualización al punto 5.- Propuesta de Ordenanzas fiscales y de precios públicos, porque cuando se habló de rentas máximas del IBI a efecto de bonificaciones dijo que la última actualización había sido el año 2013, manifestando el Alcalde que efectivamente y el incremento según el EUSTAT de diciembre de 2013 a diciembre 2018 era el 3,5.

La Corporación aprueba las citadas actas con la corrección expuesta lo que se refiere a la del 10.10.2019.

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 382 del 07.10.19 al 441del 14.11.2019; algunos de los presentes preguntan sobre determinados decretos: el del inicio el proceso para la contratación de 2 personas desempleadas dentro del Plan de Empleo de Lanbide, expediente de habilitación por importe de 5.000€ (subvención de G.V. para digitalización de documentación antigua del archivo), denegación de bonificación en el IBI a familia numerosa por disponer uno de los miembros de otro inmueble, estimación del recurso interpuesto por CTNE frente a liquidaciones de ICIO por licencia para la instalación de una base de telefonía móvil porque se compensa a través de DFA en función de la facturación en el municipio, concesión de licencia de ocupación de vivienda en Sarría y denegación de licencia para legalizar vallado en parcela de Murgia por incumplimiento de NNSS, informando el Alcalde al respecto; la Corporación se da por enterada.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

**3.- POSTA OFIZIALA**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Kultura eta Kirol Sailak, musikaren prestakuntza programak garatzeko 1.839,68 euroko diru-laguntza eman duela jakinarazi, eta kultur jardueretarako (antzerkia) diru-laguntzak justifikatzeko epemugak gogorarazi ditu.

- Lurralde Orekaren Zuzendaritzak: 2019.01.01ean zegoen zuzenbidezko biztanleria Kontzejuka banatzeko eskatu du; eta 2019ko TEFFFren likidazio aurreikuspenak eta 2020ko banaketa eta 2019ko 4. hiruhilekoaren ordainketa jakinarazi ditu.

- Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Sailak, 706-A/3 lursailean telefono mugikorreko deien banagunea jartzeko interes publikoko adierazpen espedientea hasiera batez onartzen duen 256/2019 Foru Aginduaren berri eman du.

- Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Sailak honakoak egiteko baimenak bidali ditu: Vergesekiko anaitzearen kartela jartzekoa eta Bitorianoko horniduraren kanalizazio tarte baten eta Ametzaga Zuian espaloiak konpontzeko lana egitekoa. Gainera, Lukiano, Aperregi eta Giliernako hondakin uren saneamendu eta arazketaren proiektuaren (I. fasea) handitzeagatik eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda jakinarazi du.

- Diputatu nagusiak, euskaren bidez gizarteratzeko programen garapenerako diru-laguntzen deialdiaren ebazpena jakinarazi du: 4.314,87 €.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak 2019ko iraileko derrigorrezko diru-bilketaren likidazioa jakinarazi du: 125,82 €. OHZ menpeko hiri lurzoruaren mugaketaren behin-behineko onespenerako entzunaldi epea luzatu dela ere helarazi du.

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Alava:**

- Cultura y Deporte comunica la concesión de subvenciones para el desarrollo de programas de formación musical por importe de 1.839,68 y recuerda plazo límites de justificación de subvención para actividades culturales (teatro).

- Dirección de Equilibrio Territorial solicita la distribución de la población de derecho a 01.01.2019 por Concejos, previsiones liquidación FFOFEL 2019 y reparto de 2020, y el abono del 4 trimestre/2019.

- Ordenación del Territorio y Urbanismo comunica la Orden Foral 256/2019 de aprobación inicial del expedient3e de declaración de interés público para la instalación de una estación base de telefonía móvil en la parcela 706-A/3

- Infraestructuras viarias y movilidad remite autorizaciones de carreteras para la instalación de cartel de hermanamiento con Verges, ejecución de obras en un tramo de canalización del abastecimiento de Bitoriano y reparación de aceras en Ametzaga Zuia y comunica la relación definitiva de bienes y derechos afectados por la ampliación del proyecto de saneamiento y depuración de aguas residuales de Lukiano, Aperregi y Gillerna fase I.

- Diputado general comunica la resolución de la convocatoria de subvenciones para el desarrollo de programas de socialización a través del euskera, 4.314,87€.

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica la liquidación de la recaudación ejecutiva de septiembre 2019: 125,82€, comunica la concesión de prórroga de plazo de audiencia a la aprobación provisional de la delimitación del suelo urbano sujeto al IBI.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus ● Web: www.zuia.eus*

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak honako hauek jakinarazi ditu: EAEko Lurralde Antolamenduaren gidalerroak onartzen dituen Dekretua; etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta bat abiarazi dela; eta Islarran, Rocosan, S.L. enpresak hartzen duen kokagunea kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak hartzen dituzten lurzoruen inbentariotik kendu dela.
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak erabilera turistikorako etxebizitza partikularraren biztantze jarduerako udal txostena eskatu du.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, udalerrian banda zabala hedatzeko planaren aldeko eta aurkako alderdiei edo zalantzei buruzko informazioa eskatu du.
- Segurtasun Sailak, SOS-Deiak Euskadiko larrialdiak koordinatzeko zentroarekin komunikatzeko protokoloa eguneratu dela jakinarazi du.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Euskaraldia 1 inguruan bete beharreko galdetegia eta azterketaren emaitzak bidali ditu.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, 2019ko urriko DSBE nomina eta 2019jko enplegu planaren eskaintzarako eskatutako curriculum vitaeak bidali ditu.

**3.3.- EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartea:**

- 2019-2023 legealdiko ordezkarien izendapena jakinarazi eta 2019.12.03an ospatuko den Euskararen Nazioarteko Eguneko erakunde adierazpena bidali du.

**4.- 2019.11.25EKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.**

Udalbatzak azaroaren 25ean ospatuko den Indarkeria matxistaren

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Medio Ambiente y Planificación territorial informa del Decreto por el que se aprueban las directrices de Ordenación Territorial de la CAPV, informa de la puesta en marcha de una encuesta sobre el uso de la vivienda y de la exclusión del inventario de suelo con actividades potencialmente contaminantes el del emplazamiento ocupado por Rocosan S.L. en Islarra.
- Turismo, Comercio y Consumo solicita informe municipal de actividad de habitación de vivienda particular para uso turístico.
- Gobernanza pública y autogobierno solicita información sobre aspectos favorables e inconvenientes o dudas sobre al plan de extensión de banda ancha en el municipio.
- Seguridad informa de la actualización del protocolo de comunicación al centro de coordinación de emergencias de Euskadi SOS-Deiak.
- Cultura y Política Lingüística remite cuestionario a cumplimentar y resultados del examen euskaraldia 1.
- Empleo y Asuntos sociales remite nómica REGI octubre 2019 y los curriculum vitae solicitados para la oferta del plan de empleo 2019.

**3.3.- Asociación de municipios vascos-EUDEL:**

- Informa la designación de representantes de la legislatura 2019-2023 y remite la declaración institucional del Día Internacional del Euskera 03.12.2019.

**4.- DECLARACIÓN DEL DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA EL 25.11.2019.**

La Corporación por unanimidad, aprueba la siguiente Declaración

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

aurkako Nazioarteko Egunerako ondorengo erakunde adierazpena onartu du, aho batez:

*Azaroaren 25ª (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrita, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: prebentzioa, hautematea, arreta, babesa, koordinazioa eta justizia, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonei erreparazioa ematean.*

*Biktimei erreparaziorako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekintzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimen bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.*

*Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortua dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.*

institucional con motivo del Dia Internacional contra la violencia machista el próximo 25 de noviembre:

*Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, en línea con el marco jurídico internacional, reafirmamos que es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: prevención, detección, atención, protección, coordinación y justicia, haciendo hincapié en la importancia de la reparación a las víctimas y supervivientes.*

*El principio de reparación de las víctimas supone poner en marcha las acciones necesarias con el fin de devolver a la víctima al estado previo a sufrir la violación de sus derechos. En el caso de las víctimas de la violencia machista, se entiende que el fin es la mejora sustancial de las condiciones de vida de las víctimas a partir de la reparación de sus derechos violados y recuperación del daño causado. Así mismo, se ha de apoyar el proceso de empoderamiento que refuerce su capacidad y autonomía para superar la situación de violencia.*

*Los gobiernos locales asumimos la responsabilidad y competencia reconocida en materia de atención a las víctimas, por ser las instituciones más cercanas a las mujeres que sufren violencia machista en nuestros pueblos y ciudades. Bajo el impulso coordinado del personal político y técnico, la intervención local en reparación resulta clave para ayudar a la restitución de la vida comunitaria y la reparación social y pública en el entorno más cercano de las víctimas y supervivientes de la violencia machista.*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

*Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarrizkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparaziorako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan.*

*Zuiako Udalak konpromiso politikoak betetzeko jardun nahi du, eta, horren bidez, indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten lagundu, honela:*

- *Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrizan eta eskariei entzunez eta arreta emanez.*
- *Baliabideak eta langile espezializatu eta kualifikatuak edukiz, erreparaziorako ikuspegi eta perspektiba feministatik, etorkizuneko aurrekontuetan partidak egonkortu eta indartuz.*
- *Baliabideak jarriz herritarrek eta, bereziki, emakumeek, dauden baliabideei buruzko informazioa izan dezaten.*
- *Erreparaziorako eta ahlduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.*
- *Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparaziorako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat*

*En este sentido, el trabajo de las técnicas municipales de igualdad en Berdinsarea (Red de Municipios Vascos por la Igualdad y contra la violencia hacia las mujeres) es fundamental y valioso para proveer a los ayuntamientos, especialmente a los de menor tamaño, de orientación y criterios comunes de actuación. En concreto, en el ámbito de la reparación, se trabaja en la elaboración de una Guía de Actuaciones Locales para la Reparación de las víctimas de Violencia Machista, para que las entidades locales puedan llevar a la práctica y concretar el derecho de reparación de las víctimas de violencia machista, en el ámbito de competencia municipal.*

*El Ayuntamiento de Zuia quiere actuar para cumplir los compromisos políticos, y con ello poder contribuir en la erradicación de todas las formas de violencia machista,*

- *Poniendo los derechos de las víctimas en el centro de todo el proceso de atención, escuchando y atendiendo sus necesidades y demandas.*
- *Contando con recursos y personal especializado y cualificado, desde el enfoque reparador con perspectiva feminista, estabilizando y reforzando las partidas en los presupuestos futuros.*
- *Dotarse de recursos para que la población, y especialmente las mujeres, dispongan de información sobre los recursos existentes.*
- *Velando por la diligencia y celeridad en todos los procesos de intervención reparadores y empoderadores.*
- *Coordinándose con todas las instancias implicadas, para articular los dispositivos de atención y reparación que garanticen la recuperación integral de las víctimas de violencia*

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎945 430005 • Fax: 945 430366
✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

*lehengoratuko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.*

- *Hezkuntza-eragileei dei zuzena eginez hezkuntza-tarte guztietako curriculum-ildoetan genero-berdintasuna eta feminismoa zeharka sar ditzaten, bai ikasleentzat bai irakasleentzat, eta arreta berezia jarriz autodefentsa feminista, hezkuntza afektibo-sexuala edo indarkeria matxisten prebentzioa bezalako alderdiak sendotzeko.*

- *Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzat arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko, biktimei eta bizirik atera diren pertsonei arreta eta erreparazioari dagokionez.*

- *Era berean, dei egiten diegu herritar guztiei, udalerri guztietan A25 dela-eta antolatuko diren salaketa- eta aldarrikapen-ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.*

**5.- TXOSTENAK.**

Ez dago.

**6.- GALDERAK ETA ESKAERAK**

Hainbat herritako saneamendua Bitorianoko HUAra lotzearen inguruan Aldundiarekin izandako elkarrizketen ondoren bileraren batean aipatutako hausnarketa egin den galdetu dio alkateari Lafuente zinegotzi jaunak, eta alkateak erantzun dio hainbat errealitate daudela: Kontzeju batzuk ponpaketa bidez eta beste batzuk, berriz, ez, eta eredu bakarra ezarri

*machista y la restitución de los derechos vulnerados.*

- *Hacer un emplazamiento directo a los agentes educativos, para que incluyan en las líneas curriculares de todos los tramos educativos la igualdad de género y el feminismo de forma transversal, tanto para alumnado como para profesorado, poniendo especial énfasis en el refuerzo de algunas como: autodefensa feminista, educación afectivo sexual, o prevención de las violencias machistas.*
- *Cooperando estrechamente con las agrupaciones feministas y asociaciones de mujeres locales para el diseño de políticas de igualdad y actuaciones en materia de atención y reparación de las víctimas y supervivientes de violencia machista.*
- *Y así mismo, hacemos un llamamiento a toda la ciudadanía para que participe activamente en los actos de denuncia y reivindicación que se desarrollen con motivo del 25N en todos los municipios.*

**5.- INFORMES.**

No hay.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Lafuente pregunta al Alcalde si se ha realizado la reflexión a la que aludía en alguna reunión, en conversaciones mantenidas con Diputación sobre la conexión del saneamiento de diversos pueblos a la EDAR de Bitoriano, contestándole este último que hay distintas realidades: unos Concejos con bombeo y otros no, y habría que establecer un modelo único. El Concejal Sr. Alonso piensa que

beharko litzatekeela. Alonso zinegotzi jaunaren ustez uraren ziklo osoaren unitatea egin beharko litzateke.

habría que hacer una unidad del ciclo completo del agua.

Sautu zinegotzi jaunak hornidura baltsaren eta ikastetxearen inguruko berririk dagoen galdetu eta alkateak jakinarazi dio Galera diputatu jaunak esan zuela Zuiako uraren eskumena URAri dagokiola, eta ikastetxe berria dela-eta, jakinarazi du enpresa batek errekurritu egin zuela proiektuaren eta obra zuzendaritzaren kontratazio prozesua eta, dagoeneko, ebatzita dagoela, beraz, gutxi barru esleipena ebatziko dela uste duela.

El Concejal Sr. Sautu pregunta si se sabe algo de la balsa de abastecimiento y del centro educativo, informándole el Alcalde que el Diputado Sr. Galera dijo que el tema del agua en Zuia es competencia de URA y respecto del nuevo centro escolar, informa que el proceso de contratación del proyecto y dirección de obra lo recurrió una empresa y ya se ha resuelto, por lo cual piensa que en breve se resolverá la adjudicación.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:25ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 20:25 horas de todo lo que como Secretara certifico.

Idazkaria / La Secretaria,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*